



UDALBATZARRAK 2022ko MARTXOAREN 1ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko martxoaren 1ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Concepcion Soria Legua

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Unai Sorarrain Urruzola eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2022ko otsailaren 1ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Tolosaldea Garatzen-i 2022 urteari dagokion ekarpena burutzeko eskaera onestea, hala bada.**
- 5. Harituz, Tolosaldeko bertsozale elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu, hala bada.**
- 6. XVII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala-ri” 2021 urtean emandako diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada.**
- 7. XVIII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala-ri” 2022 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada.**
- 8. Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko, 2021 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 9. Alkizako Herri eskolak eginiko 2022ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 10. Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.**



11. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2022ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.

12. Alkizako udalaren eta Ur Mara museoaren arteko hitzarmenean aldaketea, Sormenaren kabia egonaldiei buruzkoa.

13. Beste batzuk.

14. Mozioak, erreguak eta galderak.

14.1. Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna dela eta "Berdintasunaren legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea mozioaren" onespena.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2022ko otsailaren lehen ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 02/2022tik 06/2022ra Lehendakari Ebazpena eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

GOIENER	531,07
ITZIAR UZKUDUN SARASOLA	75,00
ORANGE	224,90
ORANGE	35,27
NORTEGAS	55,73
CORREOS	5,36
S.G.A.E.	24,13
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	104,67
EUSKALDUNA	60,50



EBA ERKIZIA	1.445,64
LYRECO	330,17
EUDEL	300,51
JUAN JOSE ARREGI ETXABE	197,47
DIMARPE	41,56
MAQUELSA	98,69
CORREOS	5,23
ORANGE	35,27
ARGITU ASESORES	176,90
GUREAK MARKETING	2,36
GOIENER	440,65
OTIS	468,27
IXABEL AGIRRESAROABE	330,00
OSCAR GALINDO	133,10

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **5.122,45** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2022 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik 2022ko otsailaren 9ko datuz, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non, 2021eko abenduaren 13ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, Alkizako Udalarri 2022 urteari dagokion ekarpena 5.913,00 eurotako dela jakitera ematen dio, lehenengo ekarpena, 2.956,50 eurotako martxoaren 30erako eta bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin behar dena 2.956,50 eurotako.

Ikusirik 2022ko Udal aurrekontuetako 422.943.02.01 partidari aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2022 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 5.913,00 eurotako delarik.



BIGARRENA.- Gastua 2022 urteko udal aurrekontuko 422.943.02.01 partidaren kargura egitea.

BOSTGARREN PUNTUA
HARITUZ, TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik 2022 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.04 partidari aurreikusitako diru kopuru nahikoa aipaturiko diru-laguntza esleitu eta ordaintzeko.

Gaia aztertuz, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2022 urteko Udal aurrekontuetako 422.334.00.04 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA
XVII. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA-ri” 2021 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XVII Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu dela, Alkizako Udalaren kasuan jarritako diru-



kopurua 2.108,91 euro izan zen eta kitapena egin ondoren jarri beharko zuena 2.076,07 euro.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XV.II Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

ZAZPIGARREN PUNTUA

**XVIII. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MEMORIALA”-ri
2022 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA
BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, jakinarazi duela, datorren martxoaren 13an XVII. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memoriala” egiteko asmoa duela. Aipaturiko memoriala antolatzeko, Udaletxeek egin behar duten ekarpena 20.800,00 euro izango dela jakitera ematen dute, Alkizako Udalari, 2.108,91 eurotako ekarpena egitea eskatuz.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 2.108,91 eurotako ekarpena burutzea 2021eko Udal aurrekontuetako 481.340.00.03 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 2.108,91 eurotako gastua onestea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

**ALKIZAKO HERRI ESKOLAK AURKEZTURIKO, 2021 URTEKO DIRU-
LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak aurkeztu duela, 2021 urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE



LEHENGOA.- Alkizako Herri Eskolak aurkezturiko 2021 urtean emandako diru-laguntzari dagokion zuritzea onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO 2022 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKERA, HALA BADA

Ikusirik, Alkizako Herri Eskolaren funtzionamendu egokia ahalbideratzeko, eginiko diru-laguntza eskaera, bertan, ikasturtean zehar egingo dituzten egitasmoen berri ematen dutelarik.

Ikusirik, Udal aurrekontuetako 481.320.00.01kontu sailan 1.000,00 euro aurreikusi direla, Alkizako Herri Eskolarentzat.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Alkizako Herri eskolari 1.000,00 eurotako diru-laguntza ematea, burutu behar dituzten ekintzak finantzatzen laguntzeko.

BIGARRENA.-1.000,00eurotako gastua onestea eta bere ordainketa egin dadin agintzea 2022 urteko Udal aurrekonturen 481.320.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Alkizako Herri eskolari jakinaraztea, **Udalak emandako diru-laguntza zuritu beharko duela, Udaletxe honetan izan dituen gastuen berri emanaz, dagozkion fakturak aurkeztuz.**

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri Alkizako Herri Eskolari jakinaraztea.

HAMARGARREN PUNTUA
OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2022ko ekainaren 12an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek) maratoiaren VII. Edizioa eta T2T erdi maratoiaren V. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.



Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2022ko ekainaren 12an ospatuko diren T3T VII. Eta T2T V. edizioetan antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2022 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2022KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2022 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 10.500,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro

-Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 10.500,00 eurotako ekarpena burutzea 2022 ekitaldiko 1. eta 2. hiru hilabeteetan



sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako “421.230.00.01 eta 421.330.00.01” kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 8.000,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 10.500,00 eurotako gastua onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALAREN ETA UR MARA MUSEOAREN ARTEKO HITZARMENEAN ALDAKETA, SORMENAREN KABIA EGONALDIEI BURUZKOA

Ikusita, 2021eko ekainaren 1ean eginiko Udalbatzarrean, Alkizako udalaren eta Ur Mara museoaren arteko hitzarmenari onarpena eman zitzaiola, Sormenaren Kabia egonaldiari buruzkoa.

Kontutan izanik, Alkizako Udalak eta Ur mara Museoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Sormenaren Kabia Egonaldi Artistikoak antolatu dituztela. Hurrengoak izanik egonaldien helburu nagusiak:

- Herritarrak ahalduntzea arte sorkuntzan.
- Alkizako ondare naturala balioan jartzea.
- Naturagune batean esperimentatzeko aukera eskaintzea.
- Alkizan kultur sorkuntza bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko xedearekin, parte hartzen duten aldeek hitzarmena sinatu zuten 2021eko ekainaren 1ean. Behin egonaldiak burututa, hitzarmenean jasotako hirugarren puntuan aldaketa hauek egitea adostu da:

Hitzarmenean jasotako hirugarren puntua: Alkizako Udalak Ur mara Museoari Erretore-etxeko hirugarren eta laugarren solairuetako azpiegiturak alokatuko dizkio. Alkizako Udala arduratuko da aipatutako espazioak atontzeaz. Alokairua asteko 1000-€koa izatea adostu zen. Ordea, 2021eko Sormenaren Kabia Egonaldietan bi ikaslek baino ez dituzte erabili udalaren azpiegiturak (guztira 6 gau). Egoera horren aurrean, hitzarmena sinatu duten bi aldeek hurrengo adostu dute: udal-azpiegiturak erabiltzeagatik eguneko 20-€ko kopurua kobratuko dio Alkizako Udalak Ur mara museoari.



Gaia azterturik, Udalbatza honek, Koldobika Jauregiren abstentzioarekin, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2021eko ekainaren 1ean egindako Udalbatzak onetsitako Alkizako udalaren eta Ur Mara museoren arteko hitzarmenaren hirugarren puntua aldatzeko onespena ematea. Puntua horrela geldituko delarik:

“HIRUGARRENA: Alkizako Udalak Ur mara Museoari Erretoretzeko hirugarren eta laugarren solairuetako azpiegiturak alokatuko dizkio. Alkizako Udala arduratuko da aipatutako espazioak atontzeaz. udal-azpiegiturak erabiltzeagatik eguneko 20-€ko kopurua kobratuko dio Alkizako Udalak Ur mara museoari.”

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea aipaturiko hitzarmenaren aldaketa sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Ur Mara museoari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

13.1. HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusita Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duten foru-arauak konstituzio Auzitegiaren 182/2021 epaira egokitzeko emandako foru-araudiak sei hilabeteko epea ezartzen duela udal-ordenantzak epai horretara egokitzeko.

Ikusita Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren zirriborroa prestatu duela Alkizako Udalak.



Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Hiri-lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onespena. Erabaki honi atxikitzen dena.

BIGARRENA: Hiri-lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 30 egun balioduneko epean, interesdunek alegazioak egin ditzaten.

HIRUGARRENA: Alegaziorik izan ezean, erabakia behin betikotzat joko da.

HAMALAU GARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

14.1. MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA “BERDINTASUNAREN LEGEA BERRITZEA, BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA INDARTZEA MOZIOAREN” ONESPENA

Ikusita Udal taldeak aurkezturiko Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna dela eta “Berdintasunaren legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea mozioa”, non ondorengoa dioen:

“BERDINTASUNAREN LEGEA BERRITZEA, BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA INDARTZEA

Urtero bezala, martxoaren 8an, emakumeei historikoki usurpatu zaizkien eskubideak lortzeko egindako borroka anitzen esanahia gogora ekarri eta aldarrikatu nahi dugu. Borroka horiek, zalantzarik gabe, emakumeen bizitzako hainbat arlotan aurrerapen handiak lortzen lagundu dute, eta emakumeen elkarrean eta mugimendu feministaren ekarpenik gabe ez ziratekeen posible izango. Norbanakoen, kolektiboen eta erakundeen arteko elkarlana da, nork bere eragin-eremutik abiatuta, indarrak batuz eta estrategiak partekatuz helburu bera izanik jomuga: emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea. Gaur egun ere, bide luzea dugu egiteko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun



eraginkorra lortzeko, eta, horregatik, ezinbestekoa da emakumeen eguna aldarrikatzen jarraitzea.

Esparru horretan, Eusko Legebiltzarrean Berdintasunerako 4/2005 Legearen Aldaketa onartzeari balioa eman behar zaio, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka jauzi kualitatiboa egitea ahalbidetuko duen arau-esparrua eraikitzeko testuinguru egokian sustraituta baitago.

Badakigu gaur egun gure herri eta hirietan berdintasunarekin gero eta sentsibilizazio handiagoa duten herritarrak ditugula, emakumeenganako indarkeriaren aurkako neurriak gero eta gehiago eskatzen dituztenak. Horregatik, lege berri hau aukera bikaina da gizartearen aldarri horri eta erakundeek herritarren aurrean duten konpromisoari erantzungo dion tresna bat emateko.

Berdintasunerako legearen aldaketa dator, zeinak berdintasun-politikak indartzea ekarriko duen, eta, beraz, gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aurrera garamatzana.

Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea izateaz gain, demokrazian sakontzeko eta euskal gizarte kohesionatuagoa, inklusiboagoa eta sozialki eta ekonomikoki jasangarriagoa eraikitzeko behar estrategikoa dela sinetsita.

Eta gizarte gisa dugun erronka honetan, toki-erakundeok arau-esparru berriak dakarren erronka handiari ahalik eta erantzun onena emateko aukera dugu, betiere herritarrekin eta tokiko elkarte eta mugimendu feministarekin lankidetzan estuan.

Toki entitateek berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearekin duten konpromisoa argia izan da. Azken 15 urteetan, eta 4/2005 Legeari erantzunez, Euskadiko udalak egiturak, aurrekontuak eta sarea sortuz joan dira Berdintasunarekiko, tokiko komunitateen eta euskal herritar guztien beharrei eta eskaerei erantzuteko. Aldi berean, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea, hobetzen jarraitzea eta udalerriei, batez ere txikienei, erronka horiei aurre egiteko tresnak ematea.

Honako hauetan sakondu behar dugu: politika publiko guztietako berdintasunaren zeharkakotasunean; emakumeen ahalduntzean; zaintza-lanak ikusarazi, baloratu eta partekatuko dituen gizarte baten eraikuntzan; gizonak berdintasunean inplikatzean; pobrezia feminizazioa gutxitzean; emakumeen sexu-askatasunaren alde; eta hezkuntzan, emakumeentzako bititza askea eraikitzeko balioak aldatzeko tresnarik eraginkorrena den aldetik.

Horregatik, martxoaren 8an, Alkizako Udalak konpromisoa hartu du berdintasunaren arloko politiken eta zerbitzuen diseinuan eta plangintzan aurrera egiteko, dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak bultzatzeko eta indartzeko, bai eta arauak, jarraibideak eta gidalerroak egiteko ere, lege



honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoa beren esku-hartze eremuetara zehazteko eta egokitzeko, eta behar diren baliabideak emateko.

Zehazki, konpromisoa hartu nahi dugu honako erronka hauetan pixkanaka aurrera egiteko:

- Berdintasun-politikak garatzeko **baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta teknikoak** indartzea.
- Berdintasunaren aldeko lanean **generoaren eta giza eskubideen** ikuspegia indartzea, bai eta Udaleko arloen arteko koordinazioan ere.
- **Administrazioko langileen berdintasunari buruzko barne-prestakuntza** bultzatzea.
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema** zabaltzea, gure eskumenen esparruan.
- **Herritarren sentsibilizazioan** sakontzea, gizartea kontzientziatzeko eta emakumeak ahalduntzeko kanpaina eta programa instituzionalak daudela bermatuz, bereziki gizonak eta haurrak.
- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeak ahalduntzeko neurriak osotasunean** garatzen jarraitzea, mugimendu feministaren parte-hartzea bultzatuz eta haien ekarpenak sartuz.

Martxoaren 8a dela-eta, herritar orori dei egiten diogu eskualdean antolatutako mobilizazioetan parte har dezan!”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Martxoak, emakumeen nazioarteko eguna dela eta “Berdintasunaren Legea berritzea, berdintasunaren aldeko konpromisoa indartzea mozioa”, bere osotasunean onesten du.

14.2. UKRANIAKO HERRIAREKIN ELKARTASUNA “ADIERAZPENAREN ONESPENA

Ikusita Udal taldeak aurkezturiko “Ukraniako herriarekin elkartasuna” adierazpena, non ondorengoa dioen:

“UKRANIAKO HERRIAREKIN ELKARTASUNA

Urtarrilaren 24an Errusiako armadak Ukrainari eraso zion eta estatu horren lurrak militarri okupatzen hasi zen. Harez gero gerra dago Ukrainaren lurretan.

Egoera horren aurrean Alkizako udalak honokoa adierazten du:



- 1.-Tinko gaitzesten dugu Errusiako armadak Ukrainari eraso eta inbaditu izana.
- 2.-Eraso militarari amaiera ematea eskatzen diogu Errusiari.
- 3.-Gatazkak eta desadostasunak ez dira indarraren bidez konpontzen, elkarriketaren bidetik baizik eta bi parteei eskatzen diegu armak isildu eta elkarriketa zintzo bati heltzea, nazioarteko eskubidea eta herrien autodeterminaziorako eskubidea zutoin izango dituenak.
- 4.-Ukrainako herritarrei gure samina eta elkartasuna adierazten diegu. Bereziki gogoan ditugu ukrainiar jatorriko alkizarrak eta beraien familiartekoak.
- 5.-Alkizako udalak konpromisoa hartzen du Ukrainatik etor daitezkeen errefuxiatuak hartzeko gure herriak dituen baliabideen neurrian.
- 6.-Ukrainako herriari elkartasuna adierazteko eta Ukrainaren inbasioa gaitzesteko kontzentrazioa antolatuko du udalak datorren ostiralean, martxoaren 4ean, 18.30 ortutan, Alkizako plazan eta parte hartzera dei egiten zaie alkizarrei.
- 7.-Alkizako Udalak, Erretore etxeko barnetegia deritzon espazioaren erabilera uzten du, Ukrainatik datozen errefuxiatuei behin behineko harrera egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Udal taldeak aurkezturiko “Ukrainako herriarekin elkartasuna” adierazpena bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.44etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK